

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000001227

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_DEK0472**Xedea**

COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, 2. faserako, heriotza kasuetan eta gurtza zentroetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurriak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua eman eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, heriotza kasuetarako arauak ezartzeko Osasun sailburuak agindua eman eban 2020ko martxoaren 26an.

Laugarrena: COVID-19aren zabaltzea eta kutsatzea ekiditeko, beilak eta hiletak ospakizunetarako ez ohiko neurriak ezartzen Osasun Ministroaren SND/298/2020 Agindua eman zan martxoaren 29an.

Bosgarrena: 2020ko martxoaren 30eako 872 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, heriotza kasuetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurriak onartu ziran.

Seigarrena: Normaltasun barrira iragazteko Planaren 2. fasea aplikatzeko, Alarma Egoera deklaratzeko estatu mailan ezarritako zenbait murrizketa arintzeko, maiatzaren 16an Osasun Ministroaren SND/414/2020 Agindua eman zan.

Zazpigarrena: 2020ko maiatzaren 23ko SND/440/2020 Aginduaren bidez, SND/414/2020 Aginduaren zenbait atal aldatu ziran.

Argudioak

Lehenengoa: Osasun Ministroaren SND/414/2020 Aginduak honakoa xedatzen dau:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400043B4200F1A8X6E2A2P9

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 25/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/05/2020
12:40:24

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0472
Data: 30/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



8. artikuluan: "Velatorios y entierros.

1. Los velatorios podrán realizarse en todo tipo de instalaciones, públicas o privadas, con un límite máximo, en cada momento, de veinticinco personas en espacios al aire libre o quince personas en espacios cerrados, sean o no convivientes.
2. La participación en la comitiva para el enterramiento o despedida para cremación de la persona fallecida se restringe a un máximo de veinticinco personas, entre familiares y allegados, además de, en su caso, el ministro de culto o persona asimilada de la confesión respectiva para la práctica de los ritos funerarios de despedida del difunto.
3. En todo caso, deberán respetarse las medidas de seguridad e higiene establecidas por las autoridades sanitarias para la prevención del COVID-19, relativas al mantenimiento de una distancia mínima de seguridad de dos metros, higiene de manos y etiqueta respiratoria."

9. artikuluan: "Lugares de culto.

1. Se permitirá la asistencia a lugares de culto siempre que no se supere el cincuenta por ciento de su aforo. El aforo máximo deberá publicarse en lugar visible del espacio destinado al culto. Se deberán cumplir las medidas generales de seguridad e higiene establecidas por las autoridades sanitarias.
2. Serán de aplicación los requisitos previstos en el artículo 9, apartados 2 y 3, de la Orden SND/399/2020, de 9 de mayo, para la flexibilización de determinadas restricciones de ámbito nacional, establecidas tras la declaración del estado de alarma en aplicación de la fase 1 del Plan para la transición hacia una nueva normalidad".

Eta aipatutako SND/399/2020 Aginduaren 9. artikulua honakoa xedatzen eban:

"(...) 2. Si el aforo máximo no estuviera claramente determinado se podrán utilizar los siguientes estándares para su cálculo:

- a) Espacios con asientos individuales: una persona por asiento, debiendo respetarse, en todo caso, la distancia mínima de un metro.
 - b) Espacios con bancos: una persona por cada metro lineal de banco.
 - c) Espacios sin asientos: una persona por metro cuadrado de superficie reservada para los asistentes.
 - d) Para dicho cómputo se tendrá en cuenta el espacio reservado para los asistentes excluyendo pasillos, vestíbulos, lugar de la presidencia y colaterales, patios y, si los hubiera, sanitarios.
Determinado el tercio del aforo disponible, se mantendrá la distancia de seguridad de, al menos, un metro entre las personas. El aforo máximo deberá publicarse en lugar visible del espacio destinado al culto.
No se podrá utilizar el exterior de los edificios ni la vía pública para la celebración de actos de culto.
3. Sin perjuicio de las recomendaciones de cada confesión en las que se tengan en cuenta las condiciones del ejercicio del culto propias de cada una de ellas, con carácter general se deberán observar las siguientes recomendaciones:
- a) Uso de mascarilla con carácter general.
 - b) Antes de cada reunión o celebración, se deberán realizar tareas de desinfección de los espacios utilizados o que se vayan a utilizar, y durante el desarrollo de las actividades, se reiterará la desinfección de los objetos que se tocan con mayor frecuencia.
 - c) Se organizarán las entradas y salidas para evitar agrupaciones de personas en los accesos e inmediaciones de los lugares de culto.
 - d) Se pondrá a disposición del público dispensadores de geles hidroalcohólicos o desinfectantes con actividad virucida autorizados y registrados por el Ministerio de Sanidad, en todo caso en la entrada del lugar de culto, que deberán estar siempre en condiciones de uso.
 - e) No se permitirá el uso de agua bendecida y las abluciones rituales deberán realizarse en casa.
 - f) Se facilitará en el interior de los lugares de culto la distribución de los asistentes, señalizando si fuese necesario los asientos o zonas utilizables en función del aforo permitido en cada momento.
 - g) En los casos en los que los asistentes se sitúen directamente en el suelo y se descalcen antes de entrar en el lugar de culto, se usarán alfombras personales y se ubicará el calzado en los lugares estipulados, embolsado y separado.



- h) Se limitará al menor tiempo posible la duración de los encuentros o celebraciones.
- i) Durante el desarrollo de las reuniones o celebraciones, se evitará:
- 1.º El contacto personal, manteniendo en todo momento la distancia de seguridad.
 - 2.º La distribución de cualquier tipo de objeto, libros o folletos.
 - 3.º Tocar o besar objetos de devoción u otros objetos que habitualmente se manejen.
 - 4.º La actuación de coros”

Bigarrena: Osasun sailburuak martxoaren 26an emondako aginduaren arabera, neurri honeek ezartzen dira:

- Heriotza datatik, lurperatze baimena jaso arte ez dira 24 ordu igaro behar.
- Gorpuaren garbiketa eta tanatopraxiako edo tanatoestetikako esku-hartzeak debekatzen dira.
- Osasun saileko langileek jarraitzen dabean protokolo berdinak jarraitu beharko dira.
- Hilerrri eta ehorzleketan pertsonen arteko derrigorrezko gitxieneko distantzia (1,5m.) mantendu beharko da; eskularruak eta ahoa babesteko maskarila erabiliko da eta Osasun agintariek emondako ganerako gomendioak jarraitu beharko dira.
- Langileek, Heriotza Covid-19 birusaren ondorioz danean, Osasun Sailak emondako aginduak jarraitu beharko dabez derrigor, eta egokiak diran norbaiten babes ekipoak (EPI) erabili beharko dira.
- Heriotza Covid-19 birusaren ondorioz ez danean, langileek eskularruak eta eta ahoa babesteko maskarila erabiliko dabe.

Hirugarrena: Agindu honeetan aurreikusi gabekoari jagokonez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Osasunari buruzko Erregelamendua (urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren bidez onartua) aplikatuko da, bai eta Osasun Ministerioak egindako dokumentu tekniko ere, Covid-19 kasuen gorpuak maneiatzeko prozedurari buruzkoa.

Laugarrena: Edozein kasutan Osasun Ministerioak eta Osasun sailak emandako gomendioak eta aginduak errespetatu beharko dira.

Bosgarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dauzan 7/1985 Legearen 21.1.m) artikularen arabera, alkateari jagoko, beti be Osoko Bilkureari erabagi horren barri emonda egiten dan lehenengoko batzarrean.

Erabagia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E400043B4200F1A8X6E2A2P9

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 25/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/05/2020 12:40:24

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0472
Data: 30/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dot:

LEHENENGOA: COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko, heriotza kasuetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurri honeek onartzea:

- Beiletan 25 pertsona egon ahal izango dira aire zabalean egiten badira eta 15 pertsona leku itxietan egiten badira.
- Lurperatze edo errauste agurretan, gehienez 25 pertsona eta erlijioaren arabeko apaiz edo zerbitzari batera mugatzen da parte hartzaileen kopurua. Parte hartzaileek gitxieneko distantzia (2 m.) bermatu beharko dabe; eskularruak eta ahoa babesteko maskarila erabiliko dabe eta Osasun agintariek emondako ganderako gomendioak jarraitu beharko dabez.
- Heriotza datatik, lurperatze baimena jaso arte ez dira 24 ordu igaro behar.
- Gorpuaren garbiketa eta tanatopraxiako edo tanatoestetikako esku-hartzeak debekatzen dira.
- Osasun saileko langileek jarraitzen dabezan protokolo berdinak jarraitu beharko dira.
- Langileek, Heriotza Covid-19 birusaren ondorioz danean, Osasun Sailak emondako aginduak jarraitu beharko dabez derrigor, eta egokiak diran norbaiten babes ekipoak (EPI) erabili beharko dira.
- Heriotza Covid-19 birusaren ondorioz ez danean, langileek eskularruak eta eta ahoa babesteko maskarila erabiliko dabe.
- Neurri honeetan aurreikusi gabekoari jagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Osasunari buruzko Erregelamendua (urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren bidez onartua) aplikatuko da, bai eta Osasun Ministerioak egindako dokumentu tekniko ere, Covid-19 kasuen gorpuak maneiatzeko prozedurari buruzkoa.
- Edozein kasutan Osasun Ministerioak eta Osasun sailak emandako gomendioak eta aginduak errespetatu beharko dira.

BIGARRENA: COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko, gurtza zentroetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurri honeek onartzea:

- Gehienezko aforoa %50ekoa izango da eta Osasun Ministerioak eta Osasun sailak emandako gomendioak eta aginduak errespetatu beharko dira.



- Aforoa behar bezala zehaztuta ez balego, kulkulatze estandar honeek erabiliko dira:
 - a) Banakako jesarleketan pertsona bana jesarriko da, metro bateko distantzia errespetatuta.
 - b) Bankuetan, metro lineal bakoitzeko pertsona bat jesarriko da.
 - c) Jesarleku bako leketan, m2 bakoitzeko pertsona bat egon ahal izango da, gune honeek salbuetsita: pasalekuak, sarrerak, presidentzia lekua eta alboko lekuak, patioak eta komunak.Aforoaren %50a zehaztuta, pertsonen artean gitxienez metro bateko distantzia bermatu beharko da.
Gehienezko aforoa begi-bistako lekuan iragarriko da.
Ezingo dira eraikinetako kanpokaldeak ezta bide publikoak erabili gurtza ekintzak ospatzeko.

- Gurtza ekintzen goimendio hauek jarraitu beharko dira:
 - a) Orokorrean maskarilak erabiliko dira.
 - b) Ekintza edo bilera bakoitza baino lehen erabilitako edo erabiliko diran guneen desinfektatzea egin beharko da eta, ekintzan zehar gehien ukitzen diran elementuen desinfekzioa egingo da.
 - c) Sarrerak eta urteerak antolatuko dira, sarrera eta inguruetan pertsonen multzokatzea ekiditeko.
 - d) Sarreratan gel desinfektatzailea egongo da erabiltzaileen eskuragarri.
 - e) Ur bedeinkatua ezingo da erabili.
 - f) Erabiltzaileen banaketa antolatuko da eta, beharrezkoa danean, baimendutako aforoaren arabera erabili leikezan leku edota jesarlekuak seinaleztatuko dira.
 - g) Erabiltzaileak lurrean jesartzen badira eta gurtza zentrura sartu baino lehenago oinustuko balira, norbanako alfonbrak erabiliko dira eta oinetakoak, poltsaratuta eta banatuta, horretarako zehaztuta leketan ipiniko dira.
 - h) Ekintza eta bileren denbora ahal dan gitxienera murriztuko da.
 - i) Ekintza eta bileretan honako honeek ekidingo dira:
 1. Pertsonen arteko kontaktua. Gitxienezko distantzia uneoro bermatu beharko da.
 2. Edozelako objektu, liburu edo esku-orrien banaketa.
 3. Gurtzako objektua edo ohiko bestelako objektuak ukitu eta musukatzea.
 4. Koruen parte hartzea.

HIRUGARRENA: Erabagi hau ehorztetxe, tanatorio, lurperatzaile eta gurtza zentroeri jakinaroztea.



LAUGARRENA: Idazkaritza Sailari eta Zerbitzu sailari erabagiaren barri emotea.

BOSGARRENA: Erabagia Bermeoko Udalaren web gunean argitaratzea.

SEIGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea.

Alarma egoera dela eta, erabaki honek eragina izango du apirilaren 1eko 2020/907 Alkatetza Dekretuaren arabera eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriaren arabera.

Debido al estado de alarma, esta resolución tiene los efectos contemplados en el Decreto de Alcaldía 2020/907 de 1 de abril y en la Disposición Adicional 3ª del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo.

Oharra: sinadurea eta datea orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E400043B4200F1A8X6E2A2P9

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 25/05/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/05/2020
12:40:24

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0472

Fecha: 30/03/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

